# Blog software-plataforma ezberdinen azterketa

*UEU, uztailaren 22an. Iruñean.*

Gorka Julio, Iñaki Alegria

1.- Blog-zerbitzariak
- Oinarrizko kontzeptuak
- Kontzeptu berriak
- Zerbitzariak

2.- Blog zerbitzuen azterketa

3.- *WordPress* zerbitzaria

# Blog zerbitzariak: Oinarrizko kontzeptuak

Atal honetan *blog* zerbitzarietan erabiltzen diren hainbat kontzeptu argitu nahi dira.

**CMS**: *Content Mangement System* edo *Edukien kudeaketa-sistema* izenarekin ezagutzen diren programak edo programa-multzoak webgune dinamikoak sortzeko eta kudeatzeko tresna ahaltsuak dira, objektu-mota asko (fitxategi formatudunak, multimedia, agenda, foroak, ...) kudeatu behar direnean bereziki erabiltzen direnak. Web-zerbitzari batean, datu-base sistema batean eta programazio-lengoaia batean oinarritu ohi dira. Adibideak: *PHPNuke*, *Mambo*,

**Blog zerbitzariak**: CMS berezituak blog-ak kudeatzeko. CMS sinpleak dira, baina denborarekin gero eta konplexuagoak bihurtzen ari dira.

**Oinarria**: **datu-base** bat eta **programazio-lengoaia** bat dute oinarritzat zerbitzari hauek. **PHP**k eta **MySQL**k osatu ohi dute konbinazio ohikoena.

**Blogek ekartzen dituzten kontzeptu berriak**

www.sarean.com/sarean/000509.html, www.eibar.org/blogak/luistxo/eu/271 www.goiena.net/blogak/29A/1

**RSS esportazioa/jarioa**: XML lengoaiaz adierazitako titularrak esportatzeko aukera. Horren bitartez edukien sindikazioa lortzen da hainbat zerbitzariren bitartez edo abisuak jasotzea nabigatzaileen azken bertsioen bidez www.bloglines.com da norberaren aukeraz sindikatzeko zerbitzari ezagunena, eta www.aurki.com euskarazko ezagunena.

***Trackback* edo elkarri erreferentzia egitea**: blog batetik beste batera erreferentzia egitea, baina erreferentziatutako blog-ean agertuko da.

***ping* egitea**: beste zerbitzari batekin konexioa egiaztatzea (ukitzea). Trackback-ak integratzeko erabiltzen da blog-en munduan.

***podcasting***: soinu-fitxategiak sindikatzeko aukera

**Blog zerbitzarien beste ezaugarri batzuk:**

**lizentzia-motak**: GPL, LGPL, jabedunak, ... Edukietarako CC (*Creative Commons*) erabili ohi da.

**guneak** (*sites*): zerbitzari batek zerbitza ditzakeen *blog* desberdinak.

**kanalak** (*post-channels*): weblog batean bereiz daitezkeen gai edo jario desberdinak.

**kategoriak/azpikategoriak**: kanaletako mezuak sailkatzeko aukera.

**editoreak**: mezuak editatzeko programak erabiltzeko aukerak: *Texturize*, *Textile, HTML, Java-applet, plugin, ...*

**API** (*Application Programming Interface*): bestelako programetatik atzitzeko erraztasunak ematen ditu. API desberdinak daude: *Blogger, MetaWeblog, MovableType*, ...

**zabor-oharrak (*Comment Spam*)**: Oharrak jasotzea ondo dago publizitatea edo *off-the-topic* ez badira. Zerbitzari batzuek filtratzeko zenbait aukera ematen dute: login, hitz gakoak, debekuak IP edo erabiltzailearen arabera, moderatzailea, atzerapena, ...

**txantiloi** (*template*): ereduak dira, askotan PHPz eginak dira eta kasu batzuetan *on-line* alda daitezke.

# Blog zerbitzariak

4 zerbitzari nagusi aztertzen dira: *b2Evolution*, *MovableType*, *WordPress* eta Corelog. Gure inguruan azken biak erabilienak izan arren beste biak oso hedapen handia dute.

### *b2Evolution [http://b2evolution.net](http://b2evolution.net)*

Libre (GPL), oso hedatua, hizkuntza askotarako eta anitza

*b2evolution is probably the most comprehensive blog engine you can find!*



***MovableType [http://movabletype.org](http://movabletype.org)***

Profesionala, oso erabilia eta tradizio handikoa

*Movable Type 3.17 is the premier weblog publishing platform for businesses, organizations, developers, and web designers*



***WordPress [http://wordpress.org](http://wordpress.org)***

Sinplea eta dotorea. Euskaraz.

*WordPress is what you use when you want to work with your blogging software, not fight it*



***CoreBlog [http://coreblog.org](http://coreblog.org)***

Osoa eta erraza instalatzeko (Zope edukiz gero). Euskaraz.

*Easy to setup,Full featured,Ubiquitous and Customizable!*



# Konparaketa

Honetaz gehiago sakontzeko jo erreferentzia honetara: www.asymptomatic.net/blogbreakdown.htm

| | b2Evolution | MovableType | WordPress | Coreblog |
|---|---|---|---|---|
| **Bertsioa** | V0.9 | V3.2 | V1.5 | V1.2 |
| **URL** | http://b2evolution.net | http://movabletype.org | http://wordpress.org | http://coreblog.org |
| **Adibideak** | www.deadrobot.com/b2evolution/ | www.rockandrollreport.com/ | http://anebengo.berriemaile.com/ | http://www.eibar.org |
| **Lizentzia** | GPL | Ez-komertziala | GPL | ZOPE Public |
| **Kostua** | Doan | Doan | Doan | Doan |
| **Baliabideak** | PHP4.1 | Perl 5.004_04 Berkeley DB/ MySQL/ PostgreSQL/ SQLite | PHP4.1 | Zope 2.4 Python 2.1 |
| **Euskara?** | EZ | EZ | BAI | BAI |
| **OROKORRA** | | | | |
| **Gune anitzak** | | 3 arte | EZ | |
| **Kanalak** | Mugarik gabe | Mugarik gabe | 1 | |
| **Ordenaketa** | gora, behera, alfabetikoa, kategoriaka | gora, behera, alfabetikoa, kategoriak | gora, behera, alfabetikoa, kategoriaka | |
| **Kategoriak** | Anitz | Anitz | Anitz | Anitz |
| **Azpikategoriak** | BAI | EZ | BAI | |
| **Hitz gakoak** | EZ | BAI | EZ | |
| **Editorea** | Plugin | Testu/HTML sinplea | Plugin | Testu/HTML/egituratua |
| **Borradorea** | BAI | BAI | BAI | |
| **Moderazioa** | BAI | BAI | BAI | |
| **e-postaz bidaltzea** | EZ | EZ | BAI | BAI |
| **TEKNIKOA** | | | | |
| **Ping** | BAI | BAI | BAI | BAI |
| **Nabigatzaileentzako informazioa** | BAI | BAI | BAI | BAI |
| **API** | *Blogger b2* | *Atom Blogger MetaWeblog Movable* | *Blogger MetaWeblog MovableType* | *Blogger MetaWeblog* |
| **RSS esportazioa** | 0.92, 2.0, RDF | 2.0, RDF | 0.92, 2.0, RDF | 2.0, RDF |
| **Spam-kontrola** | *login filtering blacklist* | *login moderate ipban delay* | *massedit moderate blacklist ipban linkcount* | |
| **RSS inportazioa** | EZ | | BAI | BAI |
| **Trackback** | BAI | BAI | BAI | BAI |
| **Pluginen gehikuntza** | *Drop-in* | *Drop-in* | *Push-button* | |
| **Inportazio-formatuak** | *b2 Movable Type Manywhere Minibl* | *Greymatter NewsPro Blogger* | b2 Movable Type Greymatter Blog | *Movable* |
| **Pasahitzen kudeaketa** | BAI | EZ | BAI | |
| **BESTELAKOAK** | | | | |
| **Txantiloiak** | PHP | Jabedunak | PHP | |
| **Txantiloien edizioa** | BAI | BAI | BAI | |
| **CSS editorea** | Sinplea | Sinplea | Sinplea | |
| **Bisiten log-ak** | BAI | EZ | BAI | |
| **URL dotoreak** | *path_info* | *filenames* | *mod_rewrite path_info* | |
| **Irudiak kategoriaka** | EZ | EZ | BAI | |

# Blog zerbitzuen azterketa

## Blog bat sortzeko aukera ematen duten zerbitzuak

### Euskal Herrian

**Eibar.org**

**http://www.eibar.org**

**Deskribapena**: Eibarko Internet eta teknologia berrien erabiltzaileen elkartea

**Sistema:** Zope gaineko euskaratutako eta software librea den Coreblog (http://coreblog.org/) erabiltzen du.

**Izen ematea:** eibar@eibar.org helbidera mezu bat bidali behar da eta ondoren erakunde honetako kontseilu editorialak (http://eibar.org/blogak/editoriala) baiezkoa eman ondoren irekiko digute bloga.

**Administrazioa:** Administrazio interfaze osatua. Blogari buruzko ia erabateko kontrola ematen du.

**Hizkuntza:** Hizkuntz politika zorrotza darama Eibar.org erakundeak. Euskara sustatzeko animoarekin bertan hostatzen dien blogak euskaraz egon behar dute, ez euskara hutsez baina euskaraz idazteko konpromezua hartu behar da.

**Azpimarratzeko zerbitzuak:**

| *Kategoriak* | *Trackback* | *Jarioa* | *Bilatzailea* | *Txantiloiak* |
|---|---|---|---|---|
| Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |

**Balorazioa:**

✓ Oso sistema osoa, aukera asko

✗ Izen emateko era mantsoa eta murriztua



**Goiena.net**

**http://www.goiena.net**

**Deskribapena**: Goiena.net Debagoienak Interneten duen ataria da. Webguneak gaurkotasunezko gaiak lantzen ditu. Herritarren parte hartzeak berebiziko garrantzia dauka: ateak zabaltzen dizkie gazte taldeei, euskara elkarteei, kultura mugimenduei, guraso elkarteei, Udalei, gizabanakoei ...

**Sistema:** Zope gaineko euskaratutako eta software librea den Coreblog (http://coreblog.org/)erabiltzen du.

**Izen ematea:**webmaster@goiena.com helbidera mezu bat bidali behar da. Blog pertsonalak edo komertzialek trataera ezberina dute.

**Administrazioa:** Administrazio interfaze osatua. Blogari buruzko ia erabateko kontrola ematen du.

**Hizkuntza:** Blogen inguruan murriztapenik ezartzen ez duen arren, bertan egindako guztietan euskara hutsa erabiltzen da. Erakunde honen helburuen artean "Euskara bultzatzea eta indartzea" helburua aurkitzen da.

**Azpimarratzeko zerbitzuak:**

| *Kategoriak* | *Trackback* | *Jarioa* | *Bilatzailea* | *Txantiloiak* |
|---|---|---|---|---|
| Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |

**Balorazioa:**

✓ Oso sistema osoa, aukera asko

✗ Izen emateko era mantsoa eta murriztua, ez da orrialdean zehazten nola egin behar den.



**Berriemaile.com**

**http://www.berriemaile.com**

**Deskribapena**: Ostatua doan ematen dizu Berriemailek. Google-ren iragarkietarako gune txiki bat baino ez darabilgu zerbitzu hau doanekoa izan dadin. Ez dago trikimailurik. Segurantza osoa eduki ez dizugula ezer kobratuko. Zibergunean urte batez aktibitaterik ez badago, administratzaileak ezabatu egin dezake.

**Sistema:** Wordpress (http://wordpress.org) software libreko sistema erabiltzen du. Euskara, Gaztelera, Frantsesa, Ingelesa  hizkuntzetan erabiltzeko aukera ematen du.

**Izen ematea:** Zerbitzuan alta hartzeko, info@berriemaile.com helbidera bidali behar da honako datuokin: benetako izen-abizenak, nahi duzun hizkuntza, administratzaile izena eta erantzuteko email helbidea. 48 ordutan emailez datuak bidaliko dizkizugu sisteman sartu ahal izateko.

**Administrazioa:** Wordpressek dituen onura guztiak. Administrazio interfaze osatua. Blogari buruzko ia erabateko kontrola ematen du.

**Hizkuntza:**  Ez du murrizpenik zehazten eta aipatutako 4 hizkuntzatan ezarri daiteke bere interfazea.

**Azpimarratzeko zerbitzuak:**

| ***Kategoriak*** | ***Trackback*** | ***Jarioa*** | ***Bilatzailea*** | ***Txantiloiak*** |
|---|---|---|---|---|
| Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |

**Balorazioa:**

Oso sistema osoa, aukera asko.

Pluginen bitartez hedatu daiteke.

WP Komunitate oso zabala.

Izen emateko era posta elektroniko bitartez

Trackback-ak ezkutatuak daude iruzkinen barnean (soluzioa > http://ele-zeta.com.ar/2005/01/19/resaltar-trackback-y-pingback-en-wordpress/)



**Munduan**

**Blogger**

**[http://www.blogger.com](http://www.blogger.com)**

**Deskribapena**: Dohaineko blogak sortzeko aukera ematen duen Googlek erositako enpresa.

**Sistema:** Blogger sistema propioa

**Izen ematea:** [http://www.blogger.com](http://www.blogger.com) web orrialdean egiten da eta blogaren sorkuntza berehalakoa da

**Administrazioa:** Benetan administrazio erraza, bai berriak kudeatzeko zein kudeaketa orokorrerako.

**Hizkuntza:** Administrazio interfazea daragilgun nabigatzailearen hizkuntzaren arabera moldatzen da (euskara ez dago hauen artean). Blogaren interfazea aldiz Ingelesez egon daiteke, hala ere zenbait aldaketa egin daitezke txantiloian eta eskuz zenbait gauza nahi dugun hizkuntzan jarri

**Azpimarratzeko zerbitzuak:**

| ***Kategoriak*** | ***Trackback*** | ***Jarioa*** | ***Bilatzailea*** | ***Txantiloiak*** |
|---|---|---|---|---|
| Ez | Ez | Bai | Bai | Bai |

**Balorazioa:**

✓ Administrazio eta berriak bidaltzeko era oso sinplea

✗ Kategoriak eta Trackback-ak faltan botatzen dira



**Blogsome**

**http://www.blogsome.com**

**Deskribapena**: Dohaineko blogak sortzeko aukera ematen duen Browse The World Ltd. enpresaren zerbitzua.

**Sistema:** Wordpress (http://wordpress.org) software askeko sistema erabiltzen du

**Izen ematea:** http://www.blogsome.com web orrialdean egiten da eta blogaren sorkuntza berehalakoa da. Eskatzen diren datuak oso gutxi dira posta elektroniko helbidea, blogaren izena, eta izen bat.

**Administrazioa:** Wordpressek dituen onura guztiak. Administrazio interfaze osatua. Blogari buruzko ia erabateko kontrola ematen du.

**Hizkuntza:** Orrialdea zein interfazea inglesez daude.

**Azpimarratzeko zerbitzuak:**

| ***Kategoriak*** | ***Trackback*** | ***Jarioa*** | ***Bilatzailea*** | ***Txantiloiak*** |
|---|---|---|---|---|
| Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |

**Balorazioa:**

Oso sistema osoa, aukera asko.

Pluginen bitartez hedatu daiteke.

WP Komunitate oso zabala.

Trackback-ak ezkutatuak daude iruzkinen barnean (soluzioa > http://ele-zeta.com.ar/2005/01/19/resaltar-trackback-y-pingback-en-wordpress/)

Blogsomek ezartzen dituen murriztapenak oso handiak (http://www.blogsome.com/termsofservice.php)



**Bitacoras.com**

**http://www.bitacoras.com**

**Deskribapena**: *Bitacoras.com es un proyecto abierto en el que participan usuarios de 18 países con una lengua en común: el español (también català, euskara y galego).*

**Sistema:** Bitacoras.com blogak sortzeko gaztelerazko sistema propioa erabiltzen du

**Izen ematea:** http://www.bitacoras.com web orrialdean egiten da eta blogaren sorkuntza berehalakoa da.

**Administrazioa:** Adminstrazio interfaze sinplea gauza arruntenak egiteko. Gauza sakonagoak egiteko Extras atalean sartu behar delarik.

**Hizkuntza:** Orrialdea zein interfazea gazteleraz daude. Bere zerbitzarian hostatzeko kondizio bezala hau ezartzen da "*Cualquier bitácora, weblog o diario personal escrito en español, catalá, euskera o galego, no importando el país en el que se edite*". Hau da, euskara, catalá, galego, gaztelera onartzen direla hizkuntzatan idatzitako blogak onartzen direla bertan.

**Azpimarratzeko zerbitzuak:**

| ***Kategoriak*** | ***Trackback*** | ***Jarioa*** | ***Bilatzailea*** | ***Txantiloiak*** |
|---|---|---|---|---|
| Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |

**Balorazioa:**

Gauza arruntentzako administrazio sistema oso sinplea

Estatu Espainiarreko hizkuntzak onartzen dituzten arren ez dute hauen sorkuntza bultzatzen. Beharbada hau da beraien sarietan (http://www.bitacoras.com/premios/) euskarazkoa hutsik gelditzeko arrazoia.



http://creativecommons.org/licenses/by-nc/2.1/es/

Egileak: Gorka Julio teketen@gmail.com

Iñaki Alegria